

966/2025 EBAZPENA, apirilaren 10ekoa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Medikuntza Prebentiboko Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK:

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerentearen otsailaren 25eko 754/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Medikuntza Prebentiboko Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko martxoaren 12ko EHAA 49 zk. eta 2025eko martxoaren 18ko BOE 66 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko apirilaren 8an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,


EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Medikuntza Prebentiboko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2025eko apirilaren 10a



Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendaritza gerentzia,
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI
OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
GERENTZIA
GERENTZIA
Gerentzia

María Luz Marqués González

ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI

MEDIKUNTZA PREBENTIBOKO ATAL SANITARIOKO BURUA

BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK

Onartuak:

D. José María Hernández Hernández jn.

Baztertuak:

Inor ez